# Aurretiazko genero eraginaren txostena

## Foru Arau aurreproiektua, kultura sustatzeko zerga-pizgarriak eguneratu eta zabaltzen dituena

### 1. Sarrera

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapidetzeko orduan, generoaren eraginaren aldez aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

Genero eraginaren aldez aurretiko ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

# Informe de evaluación previa de impacto de genero

## Anteproyecto de Norma Foral por la que se actualizan y amplían los incentivos fiscales para el fomento de la cultura

### 1. Introducción

Este informe tiene como objetivo dar cumplimiento a lo establecido el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Según el mismo, los anteproyectos de Norma Foral y los proyectos de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en su proceso de elaboración y tramitación, se acompañarán del correspondiente informe de evaluación previa de impacto de género.

Ese informe de evaluación previa del impacto en función del género deberá de constar de las siguientes partes:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.
- genero eraginaren aldez aurreko ebaluazioa.
- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.

- la descripción general del proyecto de norma o de disposición de carácter general.
- la evaluación previa del impacto en función del género.
- las medidas para eliminar las desigualdades identificadas y promover la igualdad de mujeres y hombres en función de la evaluación de impacto de género realizada

## 2. Arau aldaketak

Obra zinematografikoetarako eta ikus-entzunezkoen sektoreko beste produkzio batzuetarako estatuko laguntzari buruz Europako Batzordeak emandako Komunikazioa batek sektore hori babestu behar dela azpimarratzen du; eta haren aldeko laguntzetarako parametro berriak ezarri. Laguntza mota horien artean zerga-pizgarriak daude.

Komunikazioak aukera ematen du, besteak beste, produkzioan egindako gastuaren zati bat eta hobarituko den zerga oinarria lurralde jakin bati lotzeko, mugak ezartzen ditu zerga oinarriaren gainean, eta emandako laguntzei buruz informatzeko obligazioa ezartzen dio

## 2. Modificaciones normativas

Una Comunicación de la Comisión Europea sobre la ayuda estatal a las obras cinematográficas y otras producciones del sector audiovisual, destaca la necesidad de apoyar este sector, y establece unos nuevos parámetros para las ayudas al mismo. Entre este tipo de ayudas, se precisan los incentivos fiscales.

La mencionada Comunicación, establece, entre otras, la posibilidad de territorializar parte del gasto realizado en la producción, así como la base imponible sobre la cual puede aplicarse el incentivo fiscal, del mismo modo que establece límites sobre dicha base

administrazio emaileari.

y obliga a la Administración que otorgue la ayuda a informar sobre las ayudas concedidas.

Une honetan, sozietateen gaineko zergaren barruan kultura sustatzeko ezarritako pizgarriei bultzada bat eman nahi da, gure lurraldean hain errotuta dagoen kulturaren sektoreak eta bertan diharduten operadoreek laguntza jasotzen jarraitu dezaten.

En este momento, se quiere dar un impulso adicional a los incentivos para el fomento de la cultura dentro del impuesto sobre sociedades, para seguir así apoyando al sector cultural y a las y los operadores de este sector, con amplio arraigo en el territorio

Hauek dira pizgarrien aldaketa eta ezaugarri nagusiak:

Las principales modificaciones y características de los incentivos son los siguientes:

**Ikus-entzunezko lanetako inbertsioak eta gastuak**

**Inversiones y gastos en obras audiovisuales**

- Kenkaria %35etik %60ra pasatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetan egindako inbertsioa/gastua inbertsio eta gastu horien guztizkoaren %50 baino handiagoa denean.

- La deducción del 35% pasa a ser del 60%, cuando la inversión/gasto realizados en los Territorios Históricos del País Vasco supere el 50% del total de dichas inversiones y gastos.

- %50eko kenkari portzentaje berri bat ezartzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetan egindako inbertsioa/gastua inbertsio eta gastu horien guztizkoaren %35etik %50era bitartekoa denean.

- Se establece un nuevo porcentaje de deducción del 50%, cuando la inversión/gasto realizados en los Territorios Históricos del País Vasco sea de entre el 35% y el 50% del total de dichas inversiones y gastos.

- Euskarazko filmaketetan, kenketa orokorra baino ehuneko 10 puntu gehiagoko kenketa ezartzen da; zehazki, %70 edo %60.

- 10 milioi euroko gehieneko kenkari muga mantentzen da egindako produkzio bakoitzerako; eta ikus-entzunezko serieen kasuan, 3 milioi euroko beste muga bat gehitzen da ekoitzitako atal bakoitzeko.

- Kenkariaren oinarria kalkulatzeko, kopiak lortzeko gastuekin eta publizitate- eta sustapen-gastuekin lotutako produkzio kostuen %40ko muga kentzen da.

- Kenkaria aplikatu ahal izateko baldintzetako batzuk ezabatzen dira: 1) gutxienez 4 pertsonaren euskal parte-hartze teknikoa eta/edo artistikoa, 2) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean 2 asteko gutxieneko filmaketa aldia.

- Atzerriko ekoizpenak gauzatzeagatiko kenkaria, kenkariaren araubide orokorrean sartzen da.

- Para las obras rodadas en euskera se establece una deducción de 10 puntos porcentuales más que la deducción general; concretamente un 70% o un 60%.

- Se mantiene el límite de 10 millones de euros de deducción máxima para cada producción realizada; y para el caso de series audiovisuales se añade un nuevo límite de 3 millones de euros por cada episodio producido.

- Para calcular la base de la deducción, se elimina el límite del 40% de los costes de producción relacionados con los gastos para la obtención de copias y los gastos de publicidad y promoción.

- Se eliminan varios de los requisitos para poder aplicarse la deducción: 1) la participación técnica y/o artística vasca de como mínimo de 4 personas, 2) el periodo mínimo de rodaje de 2 semanas en territorio de la Comunidad Autónoma Vasca.

- La deducción por la ejecución de producciones extranjeras pasa a integrarse dentro del régimen general de

la deducción.

- Laguntzen intentsitatearen mugak mantendu egiten dira. Horrela, kenkariaren zenbatekoa, zergadunak jasotako gainerako diru-laguntzekin batera, ezingo da izan ekoizpen kostuaren %50 baino handiagoa, salbu eta ekoizpena Europar Batasuneko estatu kide batek baino gehiagok finantzatutako mugaz gaindikoa denean eta ekoizpen horretan Europar Batasuneko estatu kide bat baino gehiagoko ekoizleek parte hartzen dutenean. Horrelakoetan, zenbateko hori ezingo da izan ekoizpen kostuaren %60koa baino handiagoa.

- Se mantienen los límites de la intensidad de las ayudas. De manera que el importe de la deducción, conjuntamente con el resto de ayudas percibidas por la persona contribuyente por cada obra audiovisual, no podrá superar el 50% del coste de producción, excepto que se trate de una producción transfronteriza financiada por más de un Estado miembro de la Unión Europea y en la que participen productores de más de un Estado miembro de la Unión Europea, en cuyo caso no podrá superar el 60% del coste de producción.

- Mantendu egiten da baita, muga horiek ez zaizkiela aplikatuko zailtzat jotzen diren ikus-entzunezko lanei, ezta Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundearen Garapenerako Laguntza Batzordearen zerrendan ageri diren herrialdeak partaide diren koprodukzioei ere.

- Igualmente, se mantiene que esos límites no serán de aplicación a las obras audiovisuales consideradas difíciles ni a las coproducciones en las que participen países de la lista del Comité de Ayuda al Desarrollo de la Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económico.

- Obra bat zailtzat jotzerakoan kontuan hatzeko gauza batzuk aldatzen dira. Hemendik aurrera, emakumeek zuzendutako film luze guztiak hartuko dira halakotzat (lehen lehenengo 6 lanak soilik hartzen ziren kontuan). Halaber, obra bat

- Se modifican algunos de los supuestos para considerar una obra como de difícil. A partir de ahora, se considerarán como tal todos los largometrajes dirigidos por mujeres (antes solo se consideraban las 6 primeras obras). Asimismo, se eleva de

aurrekontu txikikotzat jotzeko muga 0,5 milioi eurotik 1 milioi eurora igotzen da. Eta, bestalde, obra zailak izango dira: % > = 33ko desgaitasun-maila duten zuzendariek soilik zuzendutakoak, dokumentalak, animazio-obrak eta, beren gaiagatik edo ekoizpenari dagozkion beste arrazoi batzuengatik, merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenak.

0,5M a 1M de euros el límite para considerar a una obra como de bajo presupuesto. Y por otro lado, pasan a considerarse obras difíciles: las dirigidas exclusivamente por directores o directoras con un grado de discapacidad >= 33%, los documentales, las obras de animación y aquellas que por su temática o por otras cuestiones inherentes a la producción encuentren dificultades para introducirse en el mercado.

**Arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunak**

- Gastuen %30eko kenkari berri bat ezartzen da kuota likidoan. Euskarazko ikuskizunetarako kenkaria %40koa izango da. Zergaldi bakoitzean sortutako kenkariak 1.000.000 euroko muga izango du zergadun bakoitzeko.

- Kenkariaren oinarria zuzeneko kostu artistikoek, teknikoek eta sustapenekoek osatuko dute.

- Kenkariaren zenbatekoak eta zergadunak jasotako gainerako diru-laguntzek ezin izango dute gainditu gastu guztien %80.

**Espectáculos en vivo de artes escénicas y musicales**

- Se establece una nueva deducción en cuota líquida del 30% de los gastos. Para los espectáculos en euskera la deducción será del 40%. La deducción generada en cada periodo impositivo tendrá un límite de 1.000.000 de euros por cada persona contribuyente.

- La base de la deducción estará constituida por los costes directos de carácter artístico, técnico y promocional.

- El importe de la deducción, junto al resto de las subvenciones percibidas por la persona contribuyente no podrá superar el 80% de los gastos totales.

**Liburuak argitaratzeagatik aplikatu beharreko kenkaria.**

Produkzio industrial seriatuari ekin aurretik euskarri fisiko bat egitea ahalbidetzen duten liburuak argitaratzeko inbertsioek eskubidea emango dute kuota likidoaren %5eko kenkaria mantentzen da.

**Kenkarien aplikazioa**

Lehen aipatutako 3 kenkarientzako:

- aplikazio-muga kuota likidoaren %50 izango da.
- ez dira kontuan hartuko gutxieneko tributazioaren zerga tasa zehazterakoan.

**Finantzaketan parte-hartzea**

Ikus-entzunezko lanen, arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen produkzioaren itzuli beharrik gabekoa finantzaketan parte hartzen duten zergadunei horietarako ezarritako kenkari orokorrak aplikatzeko aukera sortzen da.

**Deducción por edición de libros**

Se mantiene la deducción del 5% de la cuota líquida por las inversiones en la edición de libros que permitan la confección de un soporte físico, previo a su producción industrial seriada.

**Aplicación de las deducciones**

Para las 3 deducciones comentadas con anterioridad:

- el límite de aplicación será del 50% de la cuota líquida.
- no se tendrán en cuenta para determinar el tipo de gravamen de la tributación mínima.

**Participación en la financiación**

Se crea la posibilidad de que las personas contribuyentes que participen en la financiación, a fondo perdido, de la producción de obras audiovisuales, espectáculos en vivo de artes escénicas, musicales… se apliquen las deducciones

generales establecidas para las mismas.

Kenkaria ez da aplikatuko ekoizpena eta finantzaketa egiten duten zergadunen artean loturazko harremana dagoenean.

La deducción no será aplicable cuando exista una relación de vinculación entre las personas contribuyentes que realicen la producción y la financiación.

Kenkaria bateraezina izango da, osorik edo zati batean, inbertsioa edo gastua egiten duen pertsonak eskubidea duen kenkariekin.

La deducción será incompatible, total o parcialmente, con las deducciones a las que tengan derecho la persona que realiza la inversión o gasto.

## 3. Genero eragina

## 3. Impacto de género

### 3.1 Genero egokitasuna

### 3.1 Pertinencia de género

Proiektu honen helburua da sozietateen gaineko zergaren barruan kultura sustatzeko pizgarri fiskalak eguneratzea eta zabaltzea.

El objetivo de este proyecto es actualizar y ampliar los incentivos fiscales para el fomento de la cultura dentro del impuesto sobre sociedades.

Eragina izango du, hasiera batean eta modu zuzenean, obra zinematografikoetan eta ikus-entzunezkoen sektoreko beste produkzio batzuetan jarduten duten Sozietateen gaineko zergako aitortzaileei. Eta zeharka, ikus-entzunezko sektorean lan egiten duten pertsona guztiei.

Afectará, en principio y de manera directa, a las personas declarantes del Impuesto sobre Sociedades que se dediquen a la producción de obras cinematográficas y de otras producciones del sector audiovisual. Y de manera indirecta, a todas las personas trabajadoras del sector audiovisual.

Hortaz:

- amaierako talde hartzailearen barruan pertsona fisikoak daude.

- xedapen normatiboak eragina duela emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko edota kontrolatzeko moduan, eta genero-rolen hausturan eragin dezake.

Beraz, ondorioztatu behar da egokia dela arau aurreproiektua genero ikuspegitik aztertzea.

Así pues:

- dentro del grupo destinatario final están las personas físicas.

- la disposición normativa afecta al acceso y/o control de los recursos por parte de las mujeres y los hombres, y puede incidir en la ruptura de los roles de género.

Por tanto, se determina que es pertinente el análisis de género del anteproyecto normativo.

## 3.2 Genero eraginaren balorazioa

## 3.2 Valoración del impacto de género

### 3.2.1. Hasierako egoera

### 3.2.1 Situación inicial

Ikus-entzunezko merkatuan emakumezkoen parte-hartzeak eta presentziak desoreka nabarmena erakusten du. Eta gainera, horrela da bai arlo tekniko eta artistikoan, eta baita balio-katearen kate-begi desberdinetan ere (ekoizpena, sorkuntza, zabalkundea, programazioa…).

El grado de participación y presencia de la mujer en el mercado audiovisual presenta un notable desequilibrio. Y además lo hace tanto en los perfiles técnicos y artísticos, como en los distintos elementos de la cadena de valor (producción, creación, difusión, programación…).

Hori erakusten dute zenbait txostenek.

**“2022an EAEko musika sorkuntzetan eta ekitaldietan emakumeek eta gizonek izandako presentziaren eta parte hartzearen azterketa”[1]**

Interpreteek egindako kontzertuak aztertuta, egiaztatu da %18,4 baino ez direla emakumeak. Taldeen kasuan, 10etik 1 baino ez dago emakumeez soilik osatuta; eta talde mistoetan, emakumeen presentzia ere minoritarioa da (%31).

Interpreteek editatutako diskoen analisian, egiaztatu da %10,9 baino ez direla emakumeak. Taldeen kasuan, emakumez soilik osatutakoek argitaratutakoak 10etik 0,6 baino ez dira; eta talde mistoetan ere emakumeen presentzia minoritarioa da (%30,4).

Así lo manifiestan diversos informes.

**“Análisis de la presencia y participación de mujeres y hombres en creaciones y eventos musicales en la CAE en 2022”[2]**

En el análisis de los conciertos realizados por personas interpretes se constata que solo el 18,4% son mujeres. En el caso de agrupaciones, solo 1 de cada 10 está compuesta exclusivamente por mujeres; y en las agrupaciones mixtas, la presencia de mujeres es también minoritaria (31%).

En el análisis de discos editados por personas interpretes se constata que solo el 10,9% son mujeres. En el caso de agrupaciones, solo 0,6 de cada 10 son editados por mujeres, y en las agrupaciones mixtas, la presencia de mujeres es también minoritaria (30,4%).

[1] 2022an EAEko musika sorkuntzetan eta ekitaldietan emakumeek eta gizonek izandako presentziaren eta parte hartzearen azterketa (euskadi.eus)
[2] https://www.euskadi.eus/2023/analisis-de-la-presencia-y-participacion-de-mujeres-y-hombres-en-creaciones-y-eventos-musicales-en-la-cae-en-2022/web01-a3kebarg/es/

**“Emakumeen presentzia ikusizko arteetan eta ikus-entzunezkoetan”. Kulturaren Euskal Behatokia (2016)**

Txosten horren datu eta ondorio nagusienetako batzuk ondorengoak dira:

Lan Merkatuko Zentsuaren (EUSTAT – 2011) datuek erakusten dutenez, kultura-arloan, bere osotasunean gizonak dira nagusi. Emakumezkoak, EAEren barruan, sektoreko biztanleria okupatuaren %38,5 besterik ez dira. Eta Kulturaren Euskal Behatokiaren arabera, ikus-entzunezko adarrean emakumezkoen pisua %40,5ekoa zen 2013an.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak 2011-2013 epealdian ikus-entzunezkoak garatzeko eta ekoizteko emandako laguntzak jaso dituzten proiektuak aztertuta, ikusten da, oro har, ekoizpenetan parte-hartzen dutenen hamarretik hiru emakumezkoak direla (guztiaren %32,2, gizonekoen %67,8aren aurrean). Emakumezkoen presentzia handiagoa da (%35,8) fikziozko film luzeetan, eta txikiagoa animazioko ekoizpenetan (%20,1).

**“Presencia de las mujeres en las artes visuales y el audiovisual”. Observatorio Vasco de la Cultura (2016)**

Algunos de los datos y conclusiones más relevantes de este informe son los siguientes:

Según datos del Censo de mercado de Trabajo (EUSTAT - 2011), en el sector cultural, en su conjunto, predominan los hombres. Las mujeres representan únicamente el 38,5% del personal ocupado en el sector a nivel de la CAE. Y según datos del Observatorio Vasco de la Cultura en la rama audiovisual el peso de las mujeres era del 40,5% en 2013.

Analizando los proyectos que han recibido ayudas al desarrollo y producción audiovisual de la Dirección de Promoción de la Cultura del Gobierno Vasco en el periodo 2011-2013 se observa que, en términos generales, tres de cada diez integrantes de las producciones son mujeres (32,2% del total, frente al 67,8% de hombres). La presencia de las mujeres es mayor en los largometrajes de ficción (35,8%), y menor en las producciones de animación (20,1%).

Proiektu horiek aztertuta langilea ekoizpeneko lantalde teknikokoa den edo lantalde artistikokoa den, emakumezkoak behar baino gutxiago daude bi kolektiboetan: lantalde teknikoetan %30,9ko pisua dute eta lantalde artistikoetan %36,1.

Analizando esos proyectos según el personal pertenezca al equipo técnico o al equipo artístico de las producciones, las mujeres están infrarrepresentadas en ambos colectivos, con un peso del 30,9% en el personal técnico y del 36,1% en el personal artístico.

Nahiz eta arlo horietako bakoitzean zereginak sexuaren araberako lan-banaketa tradizionalari jarraituta banatu izanaren isla izan, arlo teknikoan emakumeen presentzia erabatekoa da espezialista-lanetan (ile-apainketan, makillajean eta joskintzan), handi samarra ekoizpen-lanetan eta txikiagoa lan teknikoetan (kamara, soinua…). Atentzioa ardura handieneko lanpostuei (zuzendari, gidoigile…) bideratuz gero, proiektu gehien-gehienetan egiaztatzen da emakumeen presentzia gizonezkoena baino askoz ere txikiagoa dela

Si bien dentro de cada una de esas áreas se aprecia la reproducción tradicional del reparto de tareas en función de la división sexual del trabajo, en el área técnica es abrumadora la presencia de las mujeres en las labores de especialistas (peluquería, maquillaje y sastrería), algo mayor en las labores de producción, y bastante menor en las labores técnicas (cámaras, sonido…). Y si se pone el foco de análisis en los puestos de trabajo de mayor responsabilidad (directores, guionistas...) se constata que en la gran mayoría de los proyectos la presencia de mujeres es muy inferior a la presencia masculina.

Arlo artistikoari dagokionez, emakumeak gutxiengo dira paper-mota guztietan: %40,0a protagonisten kasuan, %41,9 zerrendako paperen kasuan, eta %25 ingururaino paper nagusietan eta bigarren mailakoetan (% 23,3 eta % 26, hurrenez hurren).

En cuanto al área artística, la posición de las mujeres es minoritaria en todos los tipos de papeles: su peso es del 40,0% en el caso de los papeles protagonistas, del 41,9% en papeles de reparto, y en torno al 25% en los principales y secundarios (23,3% y 26%, respectivamente).

**"Espainiako ikus-entzunezko merkatuaren berdintasun analisia. 2014-2016 epealdian telebistan eta Espainiako zinema aretotan hedatutako fikziozko ekoizpen espainiarretan emakumearen presentziari buruzko azterketa". AISGE (2017)**

Kulturaren Euskal Behatokiak (2016) ikus-entzunezko ekoizpenetako arlo artistikoan emakumezkoak duten presentziari buruz jasotako datuak berresten ditu.

- Espainiar zinemako pertsonaien %38a bakarrik da emakumezkoa.
- Joera leundu egiten da telesailetan, eta emakumezkoen presentzia paper guztien %44,7ra iristen da.
- Gizonezkoak paper protagonisten %66a hartzen dute.
- Telebistan emakumezkoak nagusi dira bakarrik gazteak badira: 35 urtetik behera emakumezko protagonistak %55a dira.

**"Análisis de igualdad del mercado audiovisual español. Estudio de la presencia de la mujer en las producciones españolas de ficción difundidas en televisión y salas de cine de España durante el periodo 2014-2016". AISGE (2017)**

Corrobora los datos reflejados en informe del Observatorio Vasco de la Cultura (2016) sobre la presencia de las mujeres en la parte artística de las producciones audiovisuales.

- Solo el 38% de los personajes del cine español son mujeres.
- La tendencia se suaviza en las series televisivas, donde la presencia femenina alcanza el 44,7% de los papeles.
- Los hombres copan el 66% de los personajes protagonistas.
- En televisión las mujeres solo son mayoría si son jóvenes: 55% de protagonistas femeninas en menores de 35 años.

**CIMA txostena 2018 – Emakumeen adierazgarritasuna sektore zinematografikoan"**

Nahiz eta aurreko urteetako datuak hobetu, bere bukaerako ondorioetan txostenak adierazten du:

- sektore zinematografikoak erabat maskulinizatuta jarraitzen duela.
- bereizketa horizontala eta bertikala betikotzen dela lan organigraman; izan ere, erabat feminizatuta dauden lanbideak gizarte genero rolekin bat datozte.
- koste ekonomikoei dagokionez, emakumezkoek zuzendutako film luzeek %50 zenbateko txikiagoa dute, gizonezkoek zuzendutakoekin alderatuta.

**"Informe CIMA 2018 – La representatividad de las mujeres en el sector cinematográfico"**

En sus conclusiones finales el informe señala que si bien los datos mejoran respecto a años anteriores:

- el sector cinematográfico sigue estando ampliamente masculinizado.
- se perpetúa la segregación horizontal y vertical en el organigrama laboral, puesto que los cargos ampliamente feminizados coinciden con los roles sociales de género.
- en cuanto a los costes económicos, los largometrajes dirigidos por mujeres suponen un 50% de importe inferior a los de dirigidos por hombres.

### 3.2.2 Proposatutako neurrien eragina

Aztertutako txostenetan ikusten den genero arrakala argi eta garbi horren aurrean, neurri zuzentzaile bat hartzea erabaki da: ikus-entzunezko lan zailtzat hartuko dira emakumeek zuzendutako guztiak.

Horrek esan nahi du lan horientzat ez direla aplikagarriak izango 2/2014 Foru Arauko hamabosgarren xedapenaren gehigarriaren laugarren apartatuaren lehen paragrafoan ezartzen diren kenkarien mugak.

Hau da, kenkariaren zenbatekoak gainditu ahal izango duela ekoizpen kostuaren %50a, edo %60a ekoizpena Europar Batasuneko estatu kide batek baino gehiagok finantzatutako mugaz gaindikoa denean eta ekoizpen horretan Europar Batasuneko estatu kide bat baino gehiagoko ekoizleek parte hartzen dutenean.

Beraz, neurria positiboa da genero ikuspegitik. Bultzatu egingo du emakumeek film luzeak zuzentzea; izan ere, horiek erakargarriagoak izango dira zerga kenkarien ikuspegitik.

### 3.2.2 Efectos de las modificaciones propuestas

Ante esa clara brecha de género que se aprecia en los diversos informes analizados, se ha optado por tomar una medida correctora: se considerarán como obras audiovisuales difíciles todas las dirigidas por mujeres.

Ello significa que para dichas obras no serán de aplicación los límites de deducción establecidos en el primer párrafo del apartado cuatro de la disposición adicional decimoquinta de la Norma Foral 2/2014.

Es decir, que el importe de la deducción podrá superar el límite del 50% del coste de producción, o el 60% en el caso de producciones transfronterizas financiadas por más de un Estado miembro de la Unión Europea y en la que participen productores de más de un Estado miembro de la Unión Europea.

Se trata, por tanto, de una medida positiva desde el punto de vista de género. Potenciará la dirección de largometrajes por parte de las mujeres, al resultar estás más atractivas desde el punto de vista de las

deducciones fiscales.

Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, proiektuaren terminoak egokitu dira. Halere, eta segurtasun juridikoa dela-eta, badira termino batzuk aldatu ez direnak, Ekonomi Ituanren 3. artikuluak ezarritako harmonizazio arauak direla-eta, Zergei buruzko Lege Orokorrak ezarritako terminologia eta kontzeptu berean errespetatu behar direnak.

Finalmente y respecto al uso sexista del lenguaje, se ha procedido a adaptar los términos del proyecto, si bien, y por seguridad jurídica, no se han modificado aquellos términos que por las reglas de armonización establecidas en el artículo 3 del Concierto Económico, deben respetarse en la misma terminología y conceptos que los establecidos en la Ley General Tributaria.

Donostia, 2023ko abenduaren 4a

San Sebastián, a 4 de diciembre de 2023

**Sin/Fir.: José Antonio Lapeira Oyarzabal**
**AZTERLANETAKO ATALBURUA /JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS**